



25. EDIZIOA

2026ko OTSAILAK 3, 10, 17, 24

IPARRALDEA

bertan



Ekiza OTSAILAK 03 ASTEARTEA 19:00etan

Jurgi Ekizak, Willis Drummond-eko kantaria eta gitarraista, taldearen etenaldi mugagabea baliatu du bere bakarkako bigarren lana isolamenduan prestatzeko: *Argitzala*.

Album hori modu berezi batean aurkeztera dator: bakar bakarrik eszenatokian, alde batetik kanta batzuk modu intimista eta

gordin batean emanez baina bestetik, abesti batzuk modu apainduago batean proposatuz ere.

Aukera berezia izanen da orduan, diska berri hori zuzenean gozatu eta bizitzeko, baita artistaren ibilbidearen proiektu ezberdinetako kanten moldaketa bereziak primizian entzuteko.

OTSAILAK
10 ASTEARTEA
19:00etan

Habia. Omen

Habia-k ahots liluragarriak eta polifonia aberatsak uztartzen ditu, gaurko poesia eta bizi dugun errealitateak elikatzen duten unibertso batean, emozioaren eta paisaia soinuaren arteko gurutzagunean. Hizkuntza, ekologia, amodioa, sexua, artea, kultura, bizia... azaltzen dira Iparraldeko talde honen melodietan. Emozioak ekoiztea dute helburu. Poesia garaikidean oinarritzen den ikerketa berri bat jarri dute martxan, gaurko hizkuntza librean.



Maiana Aguerre: biolina eta ahotsa.
Maia Iribarne Olhagaray: biolina eta ahotsa.

Elena Haira: biola eta ahotsa.
Amaia Hiriart: txeloa eta ahotsa.

Patrick Fischer: soinua.
Antoine Decembri: argia.
Kristof Hiriart: zuzendaritza artistikoa.

OTSAILAK **17** ASTEARTEA
19:00etan



Hor Hor hirukotea

Gure hitzak kanta, berriz kanta... Itxaro Borda, Francis Jammes, Joxean Artze, Manex Lanatua, Jean Giono eta hatsa hartzeko ezinbestekoak zaizkigun beste poeten idatzi ederretatik abiatuz, gure Xibero xoxoko soinu laborategian ondutako kantu bitxiak eskaintzen ditugu.

Uhaitz eta txorien kantuari nahastekoak, lau haizeetara eramaitekoak, hizkuntzen intimitatean, ahots soilez baita artetarik kontrabaxuz eta teklatzu lagundurik.

Elsa Oliarj-Ines: ahotsa eta teklatua.

Claudine Arhantzet: ahotsa.

Maika Etxekopar: ahotsa eta kontrabaxua.



Elimberri

OTSAILAK **24** ASTEARTEA
19:00etan

Pantxix Bidart eta Primaël Montgauxik sortutako Elimberri ikusgarria bi kultura ahaideren arteko topaketa da. Bi artistek mintzarazten eta kantarazten dituzte beren tradizioak, gaurko harmonian, aspaldiko zuhurtzia gure mundu garaikidean erakutsi

nahian. Denboratik kanpo gabiltza, supazter xokoan bezala: musiketan, ipuinetan eta mitoetan murgildurik, hitzen eta kanten goxotasunean.

Pantxix Bidart: kantari eta gitarra.

Primaël Montgauxi: kantari eta akordeoia.

**KOLDO
MITXELENA
KULTURUNEA**



Santa Teresa komentua
Elbira Zipitria bidea, 1, 2.
20003 Donostia
943 112 893
kmk.gipuzkoa.eus
programazioa@gipuzkoa.eus



Ekitaldia zuzenean jarraitu



**EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA**
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

Habia. Omen.

Hor Hor hirukotea

Elimberri

Ekiza



25. EDIZIOA